










LIBURUAK MAILEGATZEKO ZERBITZUA BALDINTZAK

-  Zerbitzua **dohainik** eta **comunicadores-komunikatzaileak** web orria erabiltzen duten guztientzako da.
-  Zerbitzu hau erabiltzeko FUNDESO EUSKADI elkartearen bulegoan dagoen **izen-emate fitxa** bete behar da.
-  Jendearentzako ordutegia **11:00tik 14:00ra da**, asteazkenetan, ostegunetan eta ostiraletan FUNDESO EUSKADI elkartearen egoitzan (Ronda Kalea,1 1-C, Bilboko Alde Zaharrean) eta **aurrez hitzordua** egin behar da FUNDESO elkarteko langileekin posta elektronikoz edo telefonoz.
-  Jaiegunetan eta uztailan eta abuztuan ez dago zerbitzurik.
-  **Liburu bakoitza 15 egunez** har daiteke maileguan (gehienez bi liburu pertsona bakoitzeko). Mailegua **berritu** daiteke aurrez FUNDESO EUSKADI elkarteko arduradunei galdetuz eta beraiekin hitzartuz.
-  Epea amaitu baino lehen liburua itzultzen ez bada zigorra izango da, eta atzerapena dagoen egun bakoitzeko hiru egunez zerbitzua ezingo da erabili.
-  Erreserbak egin daitezke, baita maileguan dauden liburuen erreserbak ere, eta erabiltzaile bakoitzak gehienez bi liburu gorde ahal izango ditu.

📖 Erreserbatuta dauden dokumentuen maileguak, epea gaindituta dutenak eta eskaeraren arabera arduradunek ezartzen dituztenak ezingo dira berritu.

📖 FUNDESO EUSKADI elkarteak zerbitzuaren baldintza eta konpromisoak betetzen ez dituen erabiltzailearen izen-ematea **baliogabetzeko eskubidea** du.

📖 Erabiltzaileak liburua/k egoera ezin hobean eta adostutako epean itzultzeko konpromisoa hartzen du.

📖 Liburua **galduz** gero erabiltzaileak FUNDESO EUSKADI elkarteari galdutako liburuaren beste ale bat emateko konpromisoa hartzen du, eta ezinezkoa balitz, antzeko gaiak jorratzen dituen edo web orriaren edukiekin bat datorren beste libururen bat.

GOGORATU zerbitzu hau ez duela liburutegi batek eskaintzen, **lantoki** batek baizik, eta horregatik garrantzitsua da FUNDESO elkarteko langileekin aurrez hitzordua egitea aipatutako ordutegiaren barruan, gure arreta ziurtatu dezazun.

FUNDESO EUSKADI, Erronda kalea 1, 1.a C 48005 Bilbao
Tel. 94 415 14 83 Faxe. 94 415 1483
E-posta: euskadi@fundeso.org

www.fundeso.org/programas/es/Komunikatzaileak